



Azpeitiko Udala

**2024. URTEAN ZEHAR AZPEITIKO KULTUR ELKARTEEN
URTEKO PROGRAMAK EDO KULTUR JARDUERAK
FINANTZATZERA ZUZENDUTAKO DIRU-LAGUNTZAK (24-12D.3A/
2024KULE)**

Alkatetzak 2024ko maiatzaren 13an emandako Ebazpenaren bidez Azpeitiko Kultur Entitateen urteko programak finantzatzera zuzendutako diru-laguntzak emateko oinarriak eta deialdia onartu zituen (Oinarriak eta deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2024ko maiatzaren 23an argitaratua, 99. zenbakia).

Dirulaguntza lerro hau 2023-2025. ekitaldirako diru-laguntzak emateko Udalaren Plan Estrategikoaren III. Eranskinean jaso da. Bere helburua Kultura-sorkuntza babestu eta Azpeitiko kultura-eskaintza zabaltzen eta hobetzen lagunduko duten kultura sustatzeko, sortzeko, prestatzeko eta zabaltzeko ekimenak bultzatzea da, Udalerri dinamikoa, parte-hartzailea, modernoa eta kulturalki aktiboa sortze aldera.

Eskaerak aurkezteko epealdian 19 talde aurkeztu dira (2024KULE).

Diru-laguntzaren oinarriak jasotako prozedura jarraituz Kultura Saileko talde teknikoak deialdi honen kudeaketa lanak burutu ditu, eta eskatzaile bakoitzari ebazpen proposamena egin zaio, dagokion entzunaldi epea emanda. Denbora horretan ez da alegaziorik aurkeztu. Ondoren, Udal Kultura, Euskara eta Parte Hartze Batzordeak 2024ko irailaren 25ean egindako bilkuran diru-laguntzak onartzeko behin betiko ebazpen proposamena eman zuen.

Kultura sailetik jakinarazi da laguntzaren eskatzaile guztiek bete dituztela Araudi erregulatzailerak eta diru-laguntzei buruzkoa den azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 13. artikuluan ezarritako onuradun izateko baldintzak. Modu berean, guztiek dute zerga-betebeharrak behar bezala eguneratuta.

Laguntzaren ordainketari dagokionez, ebazpenarekin batera kasu guztietan diru-laguntzen ordainketa aurreratuak egingo dira. Izan ere, onuradunek beharrezkoa dute finantzaketa hori, helburua duten ekimenak berekin dakartzaten jarduerak egiteko.

Onuradunek beharrezkoa izango dute dirulaguntzaren ematea oinarritzen duen jarduera egitea, eta 2025eko urtarrilaren 31 baino lehenago egiaztatu beharko dute Udal honetan. Hala egiteko, onuradunek jasotako egiaztatze agiriak aurkeztu beharko dituzte, hala nola jarduketa memoria, jardueran izandako gastu eta inbertsioak, diruz lagundutako jarduketa finantzatu



Azpeitiko Udala

duten bestelako diru sarrera edo laguntzen zerrenda xehatua, eta egindako lanaren dokumentazio grafikoa. Era berean, onuradunak udalak emandako dirulaguntzaren osotasuna zuritu beharko du udalaren sarrera erregistroan, faktura eta ziurtagiri bidez, adierazitako data baino lehenago.

Udal Kultura, Euskara eta Parte Hartze Batzordeak egindako proposamena kontuan hartuta, eta dagokigun aurrekontuan diru-laguntza horietarako behar adinako kontsignazioa badagoela 2024-ko aurrekontuko 1.0401.481.334.00.01 2024 partidan, eskumenari dagokionez Toki Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.f) artikuluan oinarrituta **ERABAKI DUT:**

Azpeitiko Kultur Entitateen urteko programak finantzatzera zuzendutako diru-laguntzak emateko oinarrien baitan, 2024ko deialdian ondorengo kultur taldeei diru-laguntza **onartzea** eta **ordaintzea**:

2024KO KULTUR TALDEEN DIRULAGUNTZAK

TALDEA	ESPEDIENTE ZENBAKIA	JASOKO DUTEN DIRU-LAGUNTZA
PARROQUIA MATRIZ SAN SEBASTIAN DE SOREASU	2024KULE0001	968,00€
ZUBIZAR MUSIKA TALDEA	2024KULE0002	1.300,00€
LUIS ALBERDI ECHANIZ	2024KULE0003	2.255,00€
JULIAN BARRENETXEA ABESBATZA DE AZPEITIA	2024KULE0004	4.500,00€
AZPEITIKO ARGAZKI ELKARTEA UROLALDE	2024KULE0005	2.634,00€
SOCIEDAD DE MONTAÑA LAGUN ONAK	2024KULE0006	758,00€
UROLAKOEN NAPAR ZUZTERRAK ELKARTEA	2024KULE0007	1.750,00€
PASAIKO SARRASKIA ARGITU KULTUR ELKARTEA	2024KULE0008	1.880,00€
IKASBERRI S. KOOP	2024KULE0009	1.500,00€
ANTXIETA ARKEOLOGI TALDEA	2024KULE0010	5.000,00€
IZARRAITZ TXISTULARI TALDEA	2024KULE0011	3.500,00€
ZEZENBELTZ KULTUR ELKARTEA	2024KULE0012	750,00€
SAHATSA DANTZA TALDEA	2024KULE0013	2.500,00€
MUNOAUNDI KULTUR ELKARTEA	2024KULE0014	1.388,00€
UROLA ERDIKO TRIKIGIRO KULTUR	2024KULE0015	1.400,00€



Azpeitiko Udala

ELKARTEA		
NATUL EUSKERA ELKARTEA	2024KULE0016	1.600,00€
HAITZBEITI KULTUR ELKARTEA	2024KULE0017	1.555,00€
ITSASI DANTZA TALDEA	2024KULE0018	4.000,00€
AZPEITIKO METAL BOSKOTEA MUSIKA ELKARTEA	2024KULE0019	2.000,00€
GUZTIRA:		41.238,00 €

Ebazpenarekin batera kasu guztietan diru-laguntzen ordainketa aurreratuak egingo dira jarduerak finantzatzeko beharrezkoa delako.

Finantzaketa 1.0401.481.334.00.01 2024 partidatik egingo da.

Diruz lagundu diren ekimenak edo programak **2025eko urtarrilaren 31** baino lehen egiaztatu beharko dira. Onuradunek honako hauek bilduko dituen kontu zuriketa aurkeztu beharko dute:

- Dirulaguntza ematerakoan ezarritako baldintzak bete direla justifikatzeko jarduketaren memoria, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazita. Memorian dokumentazio grafikoa (kartelak, programak, publizitatea) eta/edo ikus-entzunezkoa (bideoak, argazkiak) sartuko dira, halakorik balego.
- Diruz lagundutako jardueraren gastuen zerrenda sailkatua.
- Fakturak edo froga-balio bera duten dokumentuak: Merkataritzako trafikiko juridikoan edo administrazio-eraginkortasuna dutenak, eta beste gastu batzuen egiaztagiria, aurreko paragrafoan aipatutako zerrendan sartutakoak, eta, hala badagokio, ordainketa egiaztatzen duten agiriak.
- Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera edo diru-laguntza batzuen zerrenda xehatua, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

Adierazitako epean justifikaziorik eta txostenik egiten ez bada, diruz lagundutako eta justifikatu gabeko zenbatekoa itzuli beharko da legeak agintzen duen moduan.

Emandako laguntzak Udalaren Web orrian argitaratuko dira, eta baita dirulaguntzen datu base nazionalen ere.

Azpeitia, 2024ko urriaren 11
ALKATEAK